Emaitzen kontsulta IKASGUNEAn.

- Ezkerraldeko menuan “Jarraipena ikasgelan” aukeratu eta gero “Kalifikazioak”.

Arazorik izanez gero:

- Ikaslearen izena azaldu behar du, bestela sakatu “Aldatu Pertsona” eta ikaslearen izena aukeratu.
- EOI Bilbo HEO ikastetxea azaldu behar du, bestela sakatu “Aldatu Ikastetxea” eta EOI Bilbo HEO aukeratu.

Probaren atal bakoitzean lortutako emaitzak erakutsiko dira, eta ondoan hiru kolore hauetako zirkulu bat izango dute:

Berdea – **Gainditua**.

Laranja – **Konpentsagarria** (nahikoa da gainerako kalifikazioekin batura egiteko)

Gorria – **Ez gainditua**.

Proba osorik gainditzeko eta GAI kalifikazioa lortzeko, ondorengo baldintza hauek bete behar dira::

• Probaren ataza bakoitza gainditu behar da, **gutxienez %50**eko puntuazioarekin.

  - A1, A2 eta B1: 10 puntu (20 puntu)
  - B2.1, B2.2 eta C1: 15 puntu (30 puntu)

• Eta ataza guztien puntuazioen batuketa **%65**era heldu beharko da gutxienez.

  - A1 eta A2: 52 puntu (80 puntu)
  - B1: 65 puntu (100 puntu)
  - B2.1, B2.2 eta C1: 97,5 puntu (150 puntu)

Irailean aurkeztu behar diren ikasle ofizialentzako ohiko galderak (FAQs)

- Irailean zein atal egin behar nuke nahitaez?
  - Gorriz agertzen zaizuna.
- Irailean aurkez naiteke konpentsatzeko moduan dauden trebetasunetara?
  - BAI, eta berdez agertzen direnetara ere bai. Begiratu zer komeni zaizun. Zalantzarik izanez gero, jar zaitez harremanetan eskolarekin.
- Kalte egin diezadake irailean ekainean baino nota gutxiago ateratzeak?
  - EZ. Nolanahi ere, bi deialdietako notarik onena jarriko zaizu.
- Azken notan %65 lortu dut, baina nire azterketa EZ da GAI; akatsa da?
  - EZ. Gorriz badago trebetasunen bat, horrek EZ GAI izatea dakar automatikoki.
- Zergatik joan behar dut azterketako bi egunetan eskolara, irailean bitartekotzara aurkeztu nahi badut?
  - Bitartekotza trebetasun bakarra izan arren, idatzizko zatia idatzizko gainerako atalekin egiten delako, eta ahozko zatia ahozko gainerako atalekin.